


Irujo, desde Londres, y Aguirre, desde América, jugaron a fondo la carta anglo-sajona valorando siempre en demasía lo que podían ofrecer y, sobre todo, la importancia que les concedían sus posibles aliados.

Así fueron transcurriendo los años de la guerra, entre ilusiones y continuos enfrentamientos entre “nacionalistas” y “autonomistas”. Mientras los socialistas seguían sumidos en el desorden interno y los comunistas atados a la estela de Moscú, el PNV fue perfeccionando sus actividades de espionaje en Europa y América al servicio de los aliados, hasta construir una pequeña pero bastante efectiva red. Con la liberación de Europa occidental y el final de la guerra las esperanzas de un retorno triunfal se hicieron más reales, pero por poco tiempo. La situación político-militar cambió rápidamente y, ante el peligro comunista, los aliados anglo-sajones mostraron pronto que no estaban por la labor de iniciar aventuras en la Península Ibérica. El exilio republicano no constituía una garantía de recambio de Franco para ellos y, aunque no lo quisieran creer, los nacionalistas vasco iban incluidos, a ojos de ingleses y americanos, en el mismo lote desestabilizador.

Es por eso que el autor termina su trabajo en 1947, cuando con el inicio de la guerra fría cualquier observador de la realidad podía advertir que las esperanzas nacionalistas debían nuevamente entrar en letargo. A partir de este momento, los exiliados en su conjunto llevaran una lánguida vida de opositores de salón que durará casi tres décadas y que, no dudamos, alguien sino es el mismo autor de este volumen, deberá estudiar detenidamente.

Mikel Zabaleta



JIMENO JURÍO, José María; SALABERRI ZARATIEGI, Patxi
Artajona. Toponimia vasca
 Tafalla : Altaffaylla Kultur Taldea, 1998. – 226 p. il. ; 24 cm. – (Altaffaylla Kultur Taldea ; 22). – ISBN: 84-920165-7-4

José María Jimeno Juríok eta Patxi Salaberri Zaratiegik egindako lana eta 1998an argitaratua Altaffaylla kultur taldearen, Nafarroako Gobernuaren eta Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona-ren babespean.

Liburuak Artaxoako euskal toponimiaren azterlana, 256 euskal toponimoena, azaltzen digu. Herriari berari eskainia dago “bere nekazaritza ondasun eta altxor arkeologiko eta artistikoez gain kultura unibertsalari bere euskara bereziaren erlikia eransten diolako”.

Aitzinsolasean Nafarroako Gobernuaren eta Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona-ren aurkezpen instituzionalak daude, bai eta Mikel Belaskok eskaintzen duen egiletako baten ikerbidea, hots, “José María Jimeno Jurío eta toponimia”.

Argitalpena, hogeita hamarren bat argazkiz eta toponimia biziko mapa topografiko batez hornitua, erakartzeko modukoa da, tamainarengatik eta edukinaren egituraketa egokiarengatik, batik bat, erraz erabil baitaiteke. Testua ere ongi aurkeztua eta zaindua dago eta berez zaila den helburua lortzen du, hala nola, jakitunek zehaztasun zientifiko egindako lana izanagatik, toponimia gaietan aditu direnentzat nahiz ez direnentzat ulergarri eta eskuragarri izatea.

Artaxoa. Euskal toponimiak toponimia lan baten xedea lortu du: ikerketa historiko eta linguistikoen sinbiosia.

a) José María Jimeno Juríok Artaxoako alde historiko-geografikoa eskaini digu sarreran eta laguntza paregabea aurkituko du hor irakurleak lanaren edukina ulertzeko. Sarrera berean Artaxoako euskarak bizirik irautearen deskripzio diakronikoa ere egin du eta bertako biztanleen euskalduntasuna frogatzen duten datu interesgarrienak gogorarazi, lehendik ere bere *Navarra. Historia del Euskera* (1997) liburuan frogatu zuen bezala.

Toponimia historian barrena ikertu du. Horretarako dokumentazio aberats, zabal eta zehatzean oinarritu da toponimo gehienetan XVI. mendetik hasita, beste batzuetan XIII-XV.etik eta beste hogeiren batean XII.etik.

Dokumentatutako formak aurkeztearekin batera gehienetan ohar eta azalpen historikoak ere egiten ditu. Hortaz, kapitulu hau balio handiko zati dokumentala da ezbairrik gabe, toponimo guztietan *Oharpenak* deitutako atal batekin osatua non toponimoen aipamen historiko berriak egiteaz gain dagozkien iruzkin, argibide eta historian zehar jasandako aldaketekin batera toponimo bizien deskripzio geografikoa ere egiten baita, bai eta beren herri ahoskera eman ere.

Toponimo bakoitzaren azalpena hain xehero emana dago, benetako erakusketa bilakatzen baita eta hori ez dute José María Jimeno Juríok duen ikertzaile mailara iritsi direnak besterik lortzen. Hainbeste urtetako ikerlanen ondorioz aztertutako artxibo askotako datuak ematea lortu du eta Artaxoako toponimia bikain argitzea. Mikel Belaskok hitzaurrean ohartarazi duen bezala, José María Jimeno Juríok Artaxoako toponimo liburu honekin burutu du toponomastikan egindako lan itzela, hain zuzen ere, orain dela hiru hamarkada “El Euskera en la toponimia de Artajona” (ik. *FLV*, 1. z. 1969) lanarekin hasi zuena.

b) Azterketa linguistikoa Patxi Salaberri Zaratiegik egina da. Orain dela urte batzuk idatzi nuen bezala (ik. *Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín* 1996, 20. or.), Patxi ezinbesteko erreferentzia dugu Nafarroako toponimiaren azterketa linguistikoan.

Hasteko, bere betiko zehaztasunez Artaxoa izenaren azterketa sakona egin du eta orain arte batzuek eta besteek gaiaz esandakoari bere ekarpen egokia erantsi.

Argia eta zehatza da 256 toponimoen azterketa linguistikoa. Nahi adinako gardenetasunik ez duten toponimoen azalpenetan onomastikaz eta Nafarroan onomastika ikerkuntzaren gaurko egoeraz daukan ezagutza ederki aski erakusten du Patxi Salaberri eta kasu bakoitzean kontua zein den garbi agertu, gero hortik abiatu izan litezkeen interpretazio bide desberdinak eskaintzeko, besteak beste *Artadiko larrea*, *Arrapatietxeondoa*, *Galindos*, *Gentze*, *Remagua*, *Saragoria*, *Txangoa* eta abarren azterketan ikus daitezkeen bezala.

Ikerketa honen ondorioz, Artaxoako euskararen ezaugarriak ere aurkitu dira. Horien artean aipagarria da jabego genitiboaren jatorrizko forma: *-e* kontsonantearen ondotik (ik. *Antxepele gortea*, *Gile gortea*, *Paskuale gortea*...) eta *-re* bokalaren ondotik (ik. *Antsare gortea*, *Errabiare gortea*, *Marteare gortea*...), gero, XIX. mendean bereziki, *-ren* bilakaturik aurkitzen dena, nahiz eta kasuren batean, *Loperen zazua* esaterako, XVI.era agertu.

Eduki linguistikoen amaieran “toponimoen glosategi orokorra” dator eta bertan toponimo bakoitzaren atal linguistikoa egoki azpimarratutako hitzen azalpena. Bere iruzkinak zehatzak dira eta, lehen esan bezala, edozeinek ulertzekoak eta,aldi berean, zehatzasun zientifikoz eginak bai azalpenak luzeagoak direnean ere, *-ain* atzizkiaren kasuan konparazio baterako; bidenabar esan dezadan egileak ondotik gai honen lan monografiko bat argitaratu duela (ik. *FLV*, 83. z. 2000. urtea).

Argitalpenarekin batera “Hutsen zerranda”ren orria dator. Nolanahi ere, tratamendu ezberdina ageri da toponimoen aipamenetan, ezberriak gabe, bi egileen lana delako. Horrela, toponimo bakoitzaren LEN. atalean Artaxoaren erreferentzia euskalduna *Artaxoa* da, baina OBS. atalean *Artaxona* (ik. 108, 110, 115... orr.). Bibliografia ematerakoan (ik. 45-50. orr.), *Iruñea* eta *Iruña* izendapenak, bata zein bestea, berdina erabili dira; batzuetan liburuaren edo artikulua argitalpen urtea errepikatu da eta beste batzuetan *CEEN*, *FLV* aldizkariari ez zaie zenbakirik jarri. Bestalde, toponimo bakoitzaren DOC. atalean, TA eta AMArt siglak aipatzean, dokumentuaren data ere ez da ageri gainerako dokumentazioarekin kronologikoki egiaztatu ahal izateko.


1994an Nafarroako toponimia txikiaren bilketa amaitutakoan (gero oso-osorik *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bilduman argitaratua izan dena I-LIX liburukietan) lan talde hartako kide batek esandakoa datorkit gogora, alegia, nafar toponimia ez zela gehiago ikertu behar izango dena egin zegoelako. Eszeptiko eta sinesgaitz begiratu zidan erantzun nionean, hain zuzen ere, bilduna orokor eta entziklopediko hori oinarri hartuta egiten ahalko zirela ikerketa eta aurkikuntza berriak lan espezifikoa eta zehatzen bidez eta, jakina, Nafarroako artxibo aberatsetan askoz hobeki dokumentatuak. *Artaxoa. Euskal toponimia* dugu esandakoaren froga argia. Bere dokumentazio ugariari esker, bestela ilun geldituko lirakeen hitz askoren formen adiera aurkitu dugu. Areago, lan hau eta bere azterketa linguistikoa zorrotza bilduma baino lehen egin izan balitz ofizialki onartu eta argitaratu ziren Artaxoako zenbait toponimoen formak (ik. *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, LIII liburukia) bestelakoak izango ziren. Konparazio baterako: *Aitzaldea* (ez *Aritzaldea*), *Enekoargedasko iturria* (ez *Kaskiturria*), *Gelaren zelaia* (ez *Genzelaia*), *Gile gortea* (ez *Gilengorrea*), *Landerriturria* (ez *Landiturria*), *Lauzobia* (ez *Lauzubia*), *Maruzua* (ez *Marazua*), *Sabusain* (ez *Santsoain*), *Zazuerte* (ez *Sazorte*), *Ardantzemakurra* (ez *Zamakurra*)...

Irizpide zientifikoak erabiltzen dituen lan guztietan bezala, zehaztasun zientifikoaren mesedetan hain zuzen, honetan ere goi maila lortzeaz gain gaia sakonduz eta argi finkatuz, galderak plazaratzen dira geroago gisa honetako lanak egiten diren heinean konpon daitezkeenak. Konparazio baterako, antroponimoak izan litezkeen *Balketz*, *Koskot(e)*... edo oraingoz enigmatikoak diren *Gelaren zelaia*, *Gentze*, *Txangoa*... toponimoak. Normalizazio linguistikoaren zailtasunak direla eta, oraingoz eztabaidagarria da egokia den ala ez *Beikorralea* normatibizatzea eta ez *Bikorralea*, *Buarroia* eta ez *Guarroia*, eta abar.

Hau bezalako lan oso eta zehatzek, horrelako dokumentazioz eta azterketa linguistiko hain zorrotzez egiten badira behintzat, zalantzarik gabe argituko dute Nafarroako euskal ondare onomastikoan orain arte ilun dagoen izen asko.

Azken batean, bi adituen lan baten aurrean gaude. Bertan bi egileek maisuki bateratu dituzte ikerkuntzaren bi alor desberdin eta osagarriak: historikoa eta linguistikoa. Batetik, José María Jimeno Jurío historialariaren artxibo lan zorrotz eta zaindua, bere sorterriko lur eremuaren ezagutzarekin osatua eta, bestetik, Patxi Salaberri Zaratiegi filologoak euskal onomastikaz orokorrean eta Nafarrokoaz bereziki duen ezagutza zabalaren aplikazioa, zehaztasun zientifikoz egina. Egileak berak gogobetetzeko eta artaxoarrak harrotzeko moduko lana da hau eta beren herriko onomastikaren sustraia, bilakaera eta esanahia ahalik eta sakonen ezagutu nahi dutenentzat eta, azken batean, beren ondare kulturalaren historiaren ezagutza handiagoa izan nahi dutenentzat jarraibide imitagarria.

Andres Iñigo



KURLANSKY, Mark

The Basque history of the world

New York : Walker & Company, 1999. – 387 p. ; 24 cm.

– ISBN: 0-22406-05-54

I would begin with a necessary caveat. Were I reviewing Kurlansky's work for, say *The New York Times Review of Books* (i.e., for a reasonably well-educated, heterogeneous audience, largely ignorant of things Basque) my comments would differ considerably from those provided to this issue of RIEV (i.e. a largely academic audience, well informed in Basque matters).

My review of *The Basque history of the world* for a general readership would underscore Kurlansky's skill in relating tales that, while oft-told, remain as obscure (in